



PAZIENTEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Odontologia Klinika irakaskuntza eta asistentzia zerbitzua da, UPV/EHUko odontologiako ikasleek egin beharreko praktika klinikoak bertan egiten dituztelarik, zein bere irakasle tutoreak gainbegiratuta. Honako hauek sartzen dira Odontologia Klinikaren jardura asistentzialaren barruan:

- ✓ Odontologiako graduiko ikasleek eskaintako asistentzia klinikoa, asistentziaren ardura duten irakasle tutoreek gainbegiratuta eta gidatuta.
- ✓ UPV/EHUko **graduondoko** ikastarorik egiten ari diren odontologoek eskaintako asistentzia klinikoa.
- ✓ Prestakuntza jardura osagarriak eta **ikerketa klinikoari buruzko proiektuak**, odontologiaren arlokoak eta, beti ere, UPV/EHUk abalaturak.

Jardura asistentzial hau beti egiten da ikasleen praktika klinikoaren barruan eta unean une eskaintako programa eta egutegi akademikoaren arabera. **Azterketak egiteko aldian eta oporretan zehar (Eguberriak, Aste Santua eta udaldian), Odontologia Klinikaren zerbitzuak ez du jardura asistentzialik eskaintzen.**

PAZIENTEEN ASISTENTZIA PROZEDURA

1. **Altan egon:** Paziente guztiek altan egon behar dute eta beren datuak jasota izan UPV/EHUren Odontologia Klinikaren zerbitzuaren pazienteen fitxategian.
2. **Alta berriak:** Akademi ikasturte bakoitzaren hasieran epe bat irekiko da zerbitzu hau inoiz ez erabili eta alta egin nahi izango duten paziente berriek alta egin dezaten. Honetarako, datuak gehitu behar dituzte klinikaren fitxategiak Klinika Odontologikoaren zerbitzuaren webgunean jarri den formularioaren bidez (<http://www.ehu.eus/eu/web/clinica.odontologica/home>) Alta egiteko aldia urrian hasten da eta amaitu egiten da zerbitzuak akademi ikasturtean artatu ahal dituen paziente nahikoak izaterakoan.
3. Ikasturte akademikoan zehar, klinikako administrazioak telefonoz adosten du hitzordua alta egin duten pazienteei, **dohaineko lehenengo kontsulta** egiteko. Deia erantzun ez edo hitzordura abisurik gabe agertu ez diren pazienteei baja emango zaie.
4. Lehendabiziko miaketa baten ostean, ikasle eta irakasle tutoreek jakinaren ganean jarriko dute pazientea aho-hortzen egoerari buruzko diagnosi orokorrari dagokionean eta egin beharreko tratamendurako balizko planaren eta gutxi gora beherako aurrekontuaren berri emanik, espezialitate ezberdinetan tratatu eta gero gerta litezkeen aldaketak aldaketa.
5. **Pazienteak** gradu eta/edo graduondoko espezialitate ezberdinetara **bideratzen dira**, zeinek bere tratamenduaren arabera arreta jaso dezan. Klinikako administrazioak hitzordua emango ditu telefonikoki, ikasleek pazienteak eskatu ahala.
6. Ikasturte bakoitza hasi aurretik finkatuko dira praktika klinikoaren **ordutegiak** eta espezialitateen arabera **banaketa**; era berean, espezialitate bakoitzaren barruan, taldeen eta kliniken banaketa ere egingo da. Tratamendu guztiak ikasleek egingo dituzte, irakasleek gainbegiraturik beti ere.
7. Pazientea hitzordura ezin etorri edo hitzordu berri bat gura balu, aldeztu aurretik jakinarazi behar du Odontologia Klinikaren telefonoetara deituta:
 - ✓ **946012942**
 - ✓ **946015306**

Telefono lineak beteta egongo balira, gomendagarria da abisuak klinikaren helbide elektronikoaren bidez ematea: clinica.odontologica@ehu.eus.

Klinikako administrazioa paziente eta ikasleen arteko **mezuak transmititzeko** bitartekoa besterik ez da, asistentziaren inguruko zalantzarik inola ere argitu ezin duelarik. Bere eginkizuna zeharo da administrazioaren arlokoa.

8. Ez da ezelako tratamendurik hasiko pazientea aldeztu aurretik informatu gabe eta ontzat eman eta **tratamendu plan eta aurrekontuarekiko adostasuna** agertu gabe, bai eta UPV/EHUren Odontologia Klinikaren zerbitzuak ezarritako ordainketa baldintzekikoa ere:
 - ✓ Tratamenduak egin eta gero ordainduko dira, **egun berean**.
 - ✓ Implanteen tratamenduak fase bakoitza amaitzerakoan ordainduko dira, kasuan kasuko fasearen zenbatekoan.
 - ✓ Hortz protesien tratamenduetan %50ean ordainduko dira lehenengo inprimaketa egiterakoan eta beste %50a protesiak ematerakoan.
 - ✓ **Ordainketak** klinikako administrazioan egingo dira **kreditu txartelaren bidez** (salbuespen gisa, eskudirutan eta legeak ezarritako gehieneko kopuruarekin).